

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua ekoitzi ahal izateko beste enpresekin lan egin dugu. Gure enpresak erabili dituen piezak espezializatutako hainbat enpresei sortzea eskatu dizkiegu. Lehorgailuak hainbat material ditu eta horretarako Parlux, Samsung eta JBL enpresak kontratatu ditugu diru baten truke.

Lehorgailua egin ahal izateko, Parlux enpresarekin lan egingo dugu. Parlux enpresa ile-lehorgailuen eta ile-apainketako beste produktu batzuen fabrikatzaile italiarra da. Haiek, motorra, haizagailua, lehorgailuaren egitura eta etengailuak sortu dizkigute eta alokatu dugun lokalean pieza horiek lehorgailura doituko ditugu. Motorra K-Advance da, ioi erantsiak dituen motor berria. Haizagailua ere material berria da, beroari eusten dion plastiko berezia eta oso gogorra. Etengailuak Soft dira, eta guztira hiru dira, bakoitzak erabilera desberdinarekin. Lehorgailuaren egitura guk diseinatu dugu, baina haiek gure diseinua jarraituz sortu digute, eta metamaterial bat gehitzeko eskatu diegu, lehorgailua ez berotzeko. Halaber, lehorgailuaren egiturarekin batera, difusore bat eta kontzentratzaile bat oparituko dizkigute, guk erosleentzako opari gisa gehitu ahal izateko. Pieza bakoitzak prezio desberdina du eta 8.000 euro ordainduko dizkiegu pieza kopurua handia izateko.



JBLrekin lan egin dugu bozgorailurako. JBL enpresa soinuan espezializatuta dago eta, bereziki, kategoria guztietako bozgorailuak sortzen ditu. Guk eskatu diogu gure lehorgailuari egokitu daitekeen bozgorailu bat sortzeko. Bozgorailurako diseinu bat bidali genien eta haiek ezarri digute. Guk, lokalean, lehorgailura doituko dugu, gainerako piezekin batera. Bozgorailuak dituen ezaugarriak JBLri guk eskatu diogunak dira. JBLri 2.000 euro ordaindu dizkiogu sortuko dizkiguten bozgorailu guztiengatik.



Samsungekin ere lan egingo dugu. Samsung enpresa multinazional elektronikoa eta informazioaren teknologien enpresa da. Gure lehorgailurako bateria eta kargagailu espezializatu bat sortzeko eskatu diogu, ez baitu bateria edo kargagailu arrunt batek balio. Kargagailuarentzat baldintza batzuk eskatu dizkiegu eta bateria lehorgailuan sartzeko moduan egokitu digute. Gure lokalean, lehorgailua paketatuko den kutxan kargagailua sartuko dugu eta bateria lehorgailuaren barruan instalatuko dugu. Horretarako, 4.000 euro ordainduko dizkiegu eta behar ditugun pieza guztiak sortuko dizkigute.



Azkenik, enpresa askorekin hitz egingo dugu gure produktua sal diezaguten. Enpresa horiek Amazon, Media Markt, Ileapandegiak, Carrefour eta Alcampo dira eta produktua asko saltzen bada, nazioarteko enpresa gehiagorekin hitz egingo da saltzeko. Enpresak hauek, elkarketa honen bidez, gure produktu bakoitzaren %15-ko irabaziak eramango dituzte.

